

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angeles Garai Arregi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Musakola auzoko Zeleta baserrian (gaur galduta) jaio zen, bost anai-arrebatatik laugarrena. Ama bertakoa zen, eta aita berriz Bedoña auzoko Arteta baserritik etorritakoa. Sei urterekin hasita Zigarrolako eskolan ikasi zuen, gerra hasi zen arte. Gerra denboran nazionalak etxetik bidali zituzten eta Oñatiko Zañartu auzoko Ipentza baserrira joan ziren ganaduekin. Bertako eskolan ikasi zuen etxera itzuli ziren arte. Anaia bi Amaiur batailoian borrokatu ziren, eta gero preso hartu zituzten. Arrasateko udaltzainen arduraduna zen "Migel Haundi"ren seme Juan Bautista Mendietarekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten. Anjelesen laguna Pilar Bastida ere egon zen elkarrizketan.

Zintak

ARR-167

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-21
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-168

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-21
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Tertulia eta karta jokoak

- **Erref:** ARR-167/002
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:01:39. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Angelesen ama auzoko Kataide baserrira joaten zen tertulietara. Arrasateko Sorgin kaleko andreak atarte ondoan eseri, eta karta jokoan jarduteko elkartzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Kataiden, klaro ba, bezinuak edo, ba, hurrien, hurrien. Gurien ama gero, ba, trenbidie kendu gauenien ta, ta ba Bittori ta, ba, famosuak izeten zienak, haik Bittori ta, haik mutilzaharrak eta neskazaharrak, bueno, kontutan eukitten auen! Eta juaten zien atzaldetan gure ama Artzubiko Nikolasakin, ba, Katiaidera. Gaiñera...
- Tertulixara.
- Tertulixia eitten. Bai. Haraxe tertulixatxue itten auen, denpora ona baauen ta ondo baauen behintzet ama, haraxe faten zien. Bittori. Ta Bittorik kontetan oskun kontu mordue esaten oskun guri.
- Bittori, Bittori zan Kataide?
- Kataidekua.
- Eta zure ama Zeletakua eta bestia?
- Bestia...
- Artzubikua esan dozu.
- Bai, baiña ha, ha hor arabar aldekie zan. Andria. Euskalduna baiña...
- Ze izen eukien Artzubiko horrek?
- Artzubikue Nikolasa.
- Osea, Nikolasa ta zure ama...
- Bai, Nikolasa ta gure ama...
- Zure amak zela eukien izena?
- Nire ama Rufina.
- Nikolasa ta Rufina faten zien Bittorigana tertulixan eittera.
- Tertulixen eittera, bai. Bai.
- Lehen holako ohitturak eozen, oin ia... oin ia holako gauzaik ez da eitten.
- Ke ba!
- ... [...] Zu bizi zaren modoko torre baten, zu faten zara aldekoa edo bestea, hiru-lau juntau baten etxien ta kafetxo bat hartu?
- Ke ba!
- Hori ez da eitten ia.
- Hori ez da eitten horreik. Horreik ez dia eitten. Eta lehen Mondrauen, lehen, hor Sorgin kalia esaten dutziena, ba, andrak sillak atara ta jokuen kalien. Klaro, hainbeste kotxe bez, ezebez. Han ez zan pasetan ezebe. Eurak bakarrik.
- Kaliak dia ibiltzeko, ezta?
- Klaro, kaliak ibiltzeko. Haik atara, atarte onduen jarri eta haintxe kalien, han ilerako andrak jokuen.
- Bai, bai, beste garai batzuk, ezta?
- Bai, beste garai batzuk, beste garai batzuk, "ya lo creo".

2. Maistra batekin 40 neska-mutiko

- **Erref:** ARR-167/003
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Musakolako auzo-eskolan hasi zen sei urterekin. Berrogei neska-mutikotik gora elkartzen ziren eskolan maistra eibartar batekin.

Transkripzioa

- Eta Zeletarrok eskolara nora faten ziñain?
- E?
- Eskolara nora....?
- Eskolara, ba, Musakolara, osea, Zigarrolako...
- Zigarrolako han auzoko eskolan?
- Bai. Auzoko eskolan. Maistrie etorten zan, eta, ba, neska-mutillek e, danok. Gu batera ibiltten gitzen. Orduen ez auen e...
- Zenbat urtekin hasi ziñan zu eskolan?
- Ba ez dakit nik. Gutxi gorabehera... horixe bai ni ez nazela akordetan. Xei-zazpi urtekin edo. Lehen bai, oin hiru urtekin faten die umiek, baiñe orduen ez. Pentsetan dot xei-zazpi urtekin.
- Eta faten ziñan orduen Zigarrolako...
- Zigarrolakora. Bai.
- Zenbat neska-mutiko alkarketan ziñain han?
- Ba, bastante. Ez dakit holan kontetan hasitta, bastante.
- Hogei, hogeita hamar, berrogei?
- Bai, bai, gehixau.
- (Laguna) Berrogei bai behintzat.
- Berrogei bai, o gehixau igual e.
- Garagartzan esan ostain ehundik gora juntaitten ziela.
- Ehundik gora e?
- Maixu batekin.
- Ba, gurien be, gurien be...
- (Laguna) Alde bixek...
- Alde bixek auzen ta danak okupaute azen.
- (Laguna) Nik ez dakit, berba ein neike?
- Bai, bai.
- Bai, bai.
- In zeike, in zeike. Beste egun baten zeuri ingo dotsut.
- (Laguna) Ez. Ni ez naz hemengua e.
- Nungua zara ba?
- (Laguna) Eibartarra.
- Eibartarra zara?
- (Laguna) Zortzi urtekin etorri nitzen Olatxora ta, ba, honekin lagun ordutik...
- Bai. Klaro, guk esnie ekarten gutsen honi.
- (Laguna) Esnia.
- Bai.
- (Laguna) Eskolara be batera faten giñen.
- A, lehengo esne bezerua orduan?
- Klaro.
- Klaro, esnia. Ta gurien e...
- Ta zueik eskolan neska-mutillak alkarrekin...
- Alkarregaz.
- Eta edade danetakuak igual.
- Bai, bai.
- Eta ze zeukotzuein, maistrua, maistria?

-Maistria.
 -(Laguna) Elisa Lasa.
 -Elisa Lasa. Eibartarra ha be. Gogorra e!
 -Euskalduna zan?
 -Bai. Baiña eskolan ez auen eitten. Euskaldune bai. Holan pentsetan auenien "honek ez justek /etxustek/ ba entendiru niri, edo ulertu" ta esaten auen "Eso así!" Euskeraz, euskeraz berbaren bat e, baiñe suelto e!
 -(Laguna) Ni akordetan naz, dibisiñuak, numero batekin, oso ondo eitten nittun, baiña bi numerokin ez zien sartzen nere buruan. Eta etxequak ez zakixien hori, eta berari ipiñi nusten sesiño altuauko mutil bat, Faustino, Txotxuenien bizi zana...
 -A bai!
 -(Laguna) Maisu. Ta hari entendiru nutsen euskeraz "a la perfección".
 -Karo.

3. Eskolak erdaraz eta zigor asko

- **Erref:** ARR-167/004
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Zailtasun handiak zituen matematikak erdaraz ulertzeko, eta halakoetan maistrak eskuan makilakadak ematen zizkion. Mutikoek egiten zituzten gaiztakeriak aipatzen ditu, baita arrazoi gabeko egur-zigorrak ere. Ikasleak gela ilun batean sartzea zen zigorretako bat. Gerrak eskolatzea eten zuen.</p>

Transkripzioa

-Niri kebrauaz pasau jaten horixe. Ipini ustien kebrauek eta... esaten usten "Tienes que hacer no se qué, no se cuántos..." ta nik, guk...
 -(Laguna) Karo, erderaz ez gekigun...
 -... ezin ba, guk ezin ulertu...
 -Aber egon egon, gauza bat [...] Zer esaten zebeñ, kebraduena?
 -Ba kebraue hasi nitzen ta... badakit xei, ta gero xei, osea, xei ta zazpi zien, ta gero ez dakit zer ein biher zan /einbizan/. Ta, eitten nauen ta... "Que no me entiendes!" Ta eneeeee... Atzenien hasi zan... maistriori hasarretu zan, ez dakit zertzuk ein utsen... "Ven aquí!" ta eskue ipini holan, ta orduen hak gaiñera emuten auen eskue ta "plisti! plasta!".
 -Makilliaz?
 -Makillie! Makillie beti! Eta lelengo ekarri auena mutikue, gaiñera, mutikuek-eta rebeldiauek... eneeeee! Nik entzunde dauket gure zeraren, honek, hartu eulixak, eta eulixak ez dakit zer eitten utsien haritxoren bategaz, eskolan hori e! Eta gero jarein. Ta zuzen maistriagana fan.
 -Nun eitten otsain eulixari harixa?
 -E, eulixak hartu, hartu eulixa eta ez dakit zer eitten utsien haxe hanketan lotu, haritxo bat, mehie izen biherko /izenbiko/ zan! Eulixen zerak lotzeko. Eta gero, ba, hiru edo lau hartu eta gero jarein eitten utsien. Eta klaro, maistriagana. Ta "¿Esto quién ha hecho?" ta hala ba, benga! Makillie! Ene, beste baten Angel Mojategikori. Hasi zan, lei... ikarurtzen auen, ta

baekixen zer auken ta... eeee,eeee, ta eeee... bastante luzie zan eta ez utsen urten. "Parece mentira!" ta hartu ta ala! Angeleri ostera "Pli! Pla!" Baiña askok? Zelako palizak! Oin balitze...

-Oin kartzelara!

-Bu, kartzelara! Bai, bai, oin balitze kartzelara!

-(Laguna) Kalabozue be a...

-A bai, kalabozuen. Ta auen...

-Kastigau eitten zinttuen kalabozora?

-Kala... baaaii! Ni sekulen egon barik nau.

-Zer zan, holako kuarto ilunen bat edo?

-Kuarto ilunen bat, eta han azen estufak, estufie neguen ixuketan zana, egurrek eta... ba han. Han `Potxotxosie´ sartzen auen, Antoni. Ta bere ama, bere ama e, azen eskolie hemen, eta bere ama hementxe bizi zan, "derecha-izquierda". Eta esaten auen, amari: "Dale! Dale! Dale a esa!" amak. Karo, zan, `Potxotxosie´ ba aber.

-Ama esaten maistriari...?

-Maistriari, joteko! Eta buenoooo, bestieri ez utsen asko inportako, baiña ala, ta kalabozuen. "Muy bien, sin comer estará hoy!" Andriek, bai, entre euskeraz, kastellana, ez dakit zer zan `Potxotxosioi´, eta han ipini... auzuen `Potxotxosie´ segittuen ipintten auen e! Buenoooo.

-Kontxo, kontxo. Eta zenbat urtera arte ibili ziñan eskolan?

-Ba ez dakit nik. Hamaika edo, hamabi.

-(Laguna) Hamabi kunpliruta. Gerrie...

-Bai, gerrie etorri zanien...

-Gerra etorri zanien eskolie eten in zan, ezta?

-Baaai, bai. Orduen be, ba!

4. Militarrek etxetik irteteko agindua

- **Erref:** ARR-167/005
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Latorre jenerala auzoko Etxezarreta baserrira etorri zen. Bertako jauna zaldi gainean ibiltzen zen bere lursail zabaletan. Egun batean, Latorre jenerala Zeleta baserria ikustera joan zen; eta, hurrengo egunean, etxetik alde egin behar izan zuten. Oñatira joan ziren.</p>

Transkripzioa

-Gero, lelengo, zegatik e hori, esan nutsun nik, jeneral Latorre, etorri zan zerera, horra etxe haundire, Etxezarretara. Etorri zan.

-A, hori, aberatsen edo...

-Bai, hori.

-Madrileñua edo nungua zan hori?

-Ez, berori, nik pentsetan dot, nik ez dakit, o Madridera etorri bazien be holan hemen txikitxotan edo etorritte edo izengo zien. Baiña bestela horreik beti hor bizi izen zien e. Eta gero ezkondu zan hori, hori, mutil zaharra ia, ezkondu zan alargun bat... señora, baiña zelakue? Guapie e. Xei... zenbat seme-alaba? Bost bai. Bi neska...

-Begararra edo ez zan hori?

-Ez, ez. Honeik, berau bizi zan hor Hernanin edo, Tolosa aldien-edo bizi zan

hau alargunau. Han auken txaleren bat. Eta ez dakit nundik, behintzat hori e... Jesus Mendia orduen gerra denporan auela esaten auen alkate, eta haren bittartez-edo ein auen behintzat hori ezautu auen. Ta hori señoiaz etorten zan asko. Baiña nik holan ezautu bera, nox hil zan ta...ez naz akordetan. Kaballuaz ibiltten zana bai. Zegatik bidiek auken, hasi Etxezarretan eta zereko, ixte zereraño, itturixte baeuen ba Arruenekue edo? Ixe haraiño. Euren holan erromarak zerrautu. Eta paseolekuak eta gero bestaldetik ixte San Prudentzioraiño.

-(Laguna) Ta mendira gora be...

-A, mendira. Ta zelako bidiek eindda? Kamioiek-eta igoten auen. Ta Sagastira ta. Zelako sagastixek gaiñera! Bueno.

-Bueno, baiña...

-Bai!

-Bueltatu gaittezen, el jeneral hori...

-Bai! Hori, hori. Jeneral, a, bai, hori. Ba jeneral hori etorri zan horra. Eta egun baten, gure etxera. Atie jo auen ta... eskerrak klaro tia Bitori ta tia Euxebia azen etxien. Hiru ume bakotxak. Bi. Tiak bi te bestiek hiru. Eta... "Quiero ver esta casa". Ta karo, ha etorten zanien, edo pasetan zanien be bilddurrez danak. Igo auen ta... "Casa ventilada, muy ventilada...". Eta klaro, etxe barrixa ondion, zenbat denpora zan ba, einddakua?

-Hori Zeleta?

-Hori Zeleta. Eta... Zeleta lehen zan bi pisokue. O... bi bizitzakue.

-Bi bizitza?

-Bi bizitza. Baiña gero, gure aittek edo erosi auenien, ba, ein zan bat. Bai. Ta haundixa, haundixa, leku haundixek han buenoooo azen.

-Akatzen ura.

-Bai, ure. Deposittuen, bai.

-(Laguna) Deposittuekin ura etxien.

-Etxien.

-(Laguna) Gero baiñeria, baiñua, cuarto baño.

-Bai. [...] Eta honek...

-Etorri zan, eta ikusi euen etxioi eta...

-Etxie ikusi auen eta ba "Casa ventilada". "Casa ventilada"... hurrengoko egunien lelengo bieltu zittunak Osiñakuek zien. Osiña, ia ha be, desapareziru ez baiña familixie geraketan die hiru edo lau baiña haik be ez dakit nun egon zien, gaiñera. Gu Oñetire juan gitzen.

5. Arrasatetik Oñatira ihesi

- **Erref:** ARR-167/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihesi egin beharra

Laburpena:

Zeleta baserritik Oñatiko Zañartu auzoko Ipentza baserrira joan ziren. Bost hilabete pasatu zituzten bertan. Ganaduekin eta gurdi batean garraiatu zitezkeen gauzeekin joan ziren Oñatira. Zaldia eta orga ere eraman zituzten. Gerrako lehenengo tiroketak azaltzen ditu.

Transkripzioa

-Oñatin auken e, gure aittak eta amak aukien koñetia. Koñetuek han, bai. Tio Santi Upain. Ez dakit ezautuko zauen.

-Santi...?
 -Santi Upain ez, Santi... zelan zan? Etxia aber... Zaiñartun...
 -Ipentza esan ostazun ezta?
 -Ipintza!
 -Bai.
 -Bai, ezauketan zauen Santi zuk...
 -Ez, Santi ez dot uste.
 -Antonio igual.
 -Ipentza nun dauen bai.
 -Bai, baiña oin ez dau e, oin kenduta dau Ipintza handik.
 -Ez dot uste...
 -Bai, nik bai, pentsetan dot baietz. Ta gero bestaldien Jardinguek azen. Horreik bi bizitza.
 -Ta zueik han egon ziñain gerran?
 -Eta gu egon gitzen Ipintzan. Gerra denporan.
 -Zenbat denpora egon ziñain han?
 -Egon gitzen ba erregen bezperan bieldu, eta maietzara arte edo.
 -Eta ganauek-eta hara erun zittuein?
 -Bai, haraxe erun gittuen. Eta oge bat be erun gauen. Karo, burdi baten zer kabiruten zan ba! Eta kamarie, gurien aittek esaten auen sekule holako kamararik, arto kamarie... ta dana hantxe itxi biher. Eta gero, ba, zaldixe ta karrue gauken. Ama plazara juaten zan Bergarara ta Mondrauera astien birriten behintzat bai. Eta esnie ekarteko, egunero, ama karruen etorten zan Mondrauera.
 -A kalera?
 -Kalera. Bai. Eta baiña gerra denporan salbokonduktue-edo atarata e.
 -Esnie ekarteko be?
 -Bai, bai, bai. Zegatik edozein denporatan azen zerak, guardixak itten. Eta akordetan naz gu eskolan ta ama etorri zala, jarri zutik kaball... zerien, eta kaballueri emonaz... porke hasi zien zera, frentie. Tiroka. Eta gurien aitta, eta Joxe Mari, zerien, goldan ta garixe eraitteko prepetan. Eta jausten zien balak. Eta balak ikusi zittuenien, sustau ta aitte-ta erretirau zien etxera. Eta ama...

6. Lehenengo tiroketak

- **Erref:** ARR-167/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:18:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Ama kaletik ihesi etorri zen orga gainean zutik. Umeak eskolatik bidali zituzten. Anporreta aldetik botatzen zituzten tiroen artean iritsi ziren etxera. Anaia bi gudariekin joan ziren.

Transkripzioa

-Etorri zan zeretik e...
 -Kaletik zaldixa...
 -Kaletik zaldixan karruen kasi zutik jarri ta makilliorreaz emoten zerari, lau gaiñien zera, disparate bat eitteko e! Eta gu, eskolatik atara gindduen, "Ah, vayan ustedes, porque hay tiroteo y no sé qué" ta urten. Eta gu...
 -A, zuek be karruen sartu eta etxera?

-Ez, ez, ez, ez. Gu etxera zeretik. Urten ta han Mojategiko iturrixa, eta soluek, eta sometan gauen "Txu! Txu!" Balak zertzen ziela errekan.

-Mekatxis la mar.

-Bai. Eta gu holan makurtuta e. Makurtuta. Muna ertzien, munie bastante...

-Zigarrola alde hortan edo izengo zan. Bai, bai, osea, Zigarrolatik errekarutz doie, errekia.

-Bai, esan gure dot /gurot/, hora balak nundik etorriko zien ba?

-Hor, hemen, hemen, hemen zerien azen, eee... Anporretan. Anporreta dau hor bat. Eta ba ez dakit nik gero Kanpazartik edo, behintzet balak etorten zien.

-“Plos, plos, plos” hantxe.

-Bai. Eta errekan geuk entzun. Eta, bueno, ia pasau gauenien zera, gero e, mutillok, hartu neskailok bixkerrien ta errekie pasau gauen, eta bueno, ailegau gitzen behintzet etxera. Sano.

-Kontxo.

-Bai.

-Eta hori zan hogeta hamaseixan, edo hamazazpitan?

-A, horixe bai ez dakittetela!

-Zuk esan dozu errege inguruan fan ziñeila...

-Bai, errege inguruen.

-Ba hori izango zan hogeta hamazazpitan.

-Bai, holakon bat.

-Tiroteuena aurretik?

-E?

-Tiroteuena aurretik?

-Bai, bai, bai, bai, hor e zertu gauena...

-(Laguna) San Andres eguna zan. Abanzia egon zana.

-Ba nik ez dakitt nun, ze egun zan.

-San Andres eguna?

-Ba, balitteke.

-(Laguna) Bai.

-Hori da abenduan, ezta?

-Abenduan hogeta hamaikan.

-(Laguna)... egon zan ta Zigarrolaraiño ixa etorri zien.

-A, militarrek bertan egon zien?

-(Laguna) Milizianuak.

-A, milizianuak.

-(Laguna) Etorri zian Zierrolaraiño ixa.

-Bai.

-Ta zuk esan dozun jeneral hori, zuen etxia ikustera etorri zana, Francona zan edo gorrixena?

-(Laguna) Francona.

-Franconaaaaa! Francona!

-Oseake ia abanzia ia etorritta, ia gorrixok eta bialduta hemendik, ezta?

-Bai, bai, bai, gurien ze... nire anaia ta, anai bi, juanda eozen. Zegatik akordetan naz, gaiñera, etorri zan Arrueneko Martin. Etorri zan etxera, gure etxera, eta esan auen, karo gure etxien ba azen nerbioso, “Nora fan dittun horreik, nora, nora zetan? Nora fan diela?” eta esan utsen: “Hi, fan dittuk e. Igo juek zerien gora”. Han, gure Arrotik gora, zeretik Antoña, ta “Saburdittik gora fan dittuk haik Kanpanzarrera edo norabait. Fan dittuk” Eta...

-Hori zure anaiak eta?

-Nire anaiak. Bai. Hori, egun baten.

7. Gerrak familia sakabanatu

- **Erref:** ARR-167/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian, amandrea, gurasoak, hiru anai-arreba eta izeba soltera bat geratu ziren etxean. Beste hiru osabek hanka egin zuten, senide bat fusilatu zutenean.

Transkripzioa

-Ta hurrengokuen, gurien ez dakit zelan etorri zan tia Euxebin-ta zer bat. Primo bat edo ez dakit zer zan, Villarealtarra. Eta zelan gizona, Villarrealkuek auken tiak, ba, juan zan gurera, etorri zanori. Eta etorri zanian gurera, esan auen, hartu ba Angel, ontxe hil dana, eta Joxe Mari be bai, eta bera eta Kanpazarrera. Kanpazarrera, hartu ezkerro Kanpazar ta gure etxetik zuzen fango zien Kanpazarrera. Eta esan auen. Mutikuek esan ei utsen Joxe Mariri: "Ene mutikua fan hadi etxera, etxera fan hadi. Hi ondion mutikue haz ta. Gaztie ta fan hadi etxera."

-(Laguna) Hamabost urte.

-Eta etorri zan etxera. Eta, bueno, ba, gero geratu gitzen hori, Joxe Mari, Nikasio ta ni. Etxien. Ta aitta-amak, ta amandrie be bizi gauen ta beste tiak be bai, soltera ondion. Eta gero, ba, etorri zien etxera, tia bat, zeatik gizonok bixok juanda hortik ziher. Zeatik gurien tio etxien auen, baiñe abixau utsien tiori urteteko etxetik. Hurrengoko egunien bere koñetu bat hil ein auen. Klaro, hartzen zittuen automobilletan, automobilletan ez, kamioietan, ta zutik pasetan zien, gure etxien behera ikusten gittuen. Eta Migel hori, ba, gero afusillau ein auen. Ta gure tio, ba, abixue urteteko. Ta gabien urten, eta Uribarriko abadetxie, abade hak bieldu auen abixua, hak baekixen zer, 'Matxakito', esaten auen txapelgorrixaz ibiltten zala, karlistia edo ez dakit zer zan, e. Eta hak abixau, urteteko etxetik.

-[Garbittu eingo ebeilla bestela].

-Bai. Ta hurrengoko egunien billa. Ta ha fan zan... Bilbon gero egon zan Edurnen-ta etxien. Anaia eukien han, Bilbon, eta haretxen etxien egon zan gero Angel, nire anaia, eta tio Benito eta tio Juan, hantxe. Eta, bestelan, haik hartu bazittuen, bai, bai, hilko auen.

-Bertan garbittu ta kitto.

-Bertan... bai, bai, bai, hartu ta eruen e, horra Donostiara edo ez dakit nora erueten zittuen, Oiartzunen edo esaten auen.

-Oiartzunera. Hemendik berrogetaka erun zittuen.

-Bai. Eta, hil ta kitto.

8. Denbora-pasa Ipentza baserrian

- **Erref:** ARR-167/010
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Kartetan jokatzeko zuten lepentza baserrian, Usako eta Upaingo baserriko lagunekin. Oheak ganbaran jarri zituzten. Zeleta baserria eta inguruak oso hondatuta utzi zituzten soldaduek.</p>

Transkripzioa

-Bueno ta bagoiaz Oñatira, ta Oñatin ze eitten dou?

-Ba aber zer eitten doun Oñetin? Ba Oñetin, ba, tio Santi zan buenoooo! Ta juntetan zien, klaro, ni neskatiillie, eta han Usa... zereko, Usakokuek, Upaingue Nati, eta... han besteren bat be bai. Bueno, kartetan. Zazpi tt'erdixen. Baiñe zelan! Zazpi tt'erdixen! Hantxe zapaixen jarri bai, eta buenoooo, gu begire.

-Barkatu, Nati zu baiño zahartxuaua izengo zan ba?

-Pentsetan dot baietz.

-Bai.

-Baiña bai ha bai, zahartxuaua zan. Izengo zan urte bat o bi... Maxima ta zera be ezautu nittuen, karo danak, eta hori...

-Maxima, Maxima igaz, aurten edo igaz? Igaz, igaz hil zan Maxima.

-Igez hil zan, bai. Eta Upaingo Juanito eta aldemeneko Gregorio, etorten zien gure, gu gingozen etxera, zegatik gure... gu geu, eta gero hori tio Juanen andria, ume bikin auen, neskatiillaren bat ez dakit zenbat hiru bat urte eta gero beste bat urte eitteko-edo dauena. Eta haik be, ba, Ipintzan. Ta han kamaran be ohie ipinita e, egon gitzen. Pentsau zeike, hamahiru lagun edo. Eta...

-Ilbaltzetik maietzera esan dozu, ezta?

-E?

-Ilbaltzetik maietzera.

-Bai, bai, maietzera. Eta, ba, lelengo klaro, pfff, etorri zien aitte ta ama horra ikusten, eta ba egon biher auen, pfff, ondo zainddu ei auen, ondo, zerak, Donostiako reketiak edo ez dakit zer esaten utsien, e Oriamen... Oriamendi ez. Oriamendi izengo zan? Bai, izen leike. Eta haik ondo zainddu ei auela, eta esaten auena "Qué pena, ¿dónde estará esta familia?" Hori esaten auela sarritan e, "Dónde estará?". Ta gero, gero gu etorritta ta klaro, itxu... egon biher zan /bizan/... ta gero haren ostien sartu zien soldauak. Ta soldauak? Bueno, itxitta, hango... bueno... esaten auen lotsagarrixe zala ha. Eta guri etxa e... ez uskun itxi etorten, ama ta aitta etorri ta batonbatzuk, lagunak batzuek, ba, garbittu edo itxuratu auen etxiori. Etxiori ta, ba, inguruek, inguruek be bueno danak... potaje guztiok be botata, sobretan zienak eta bueno bueno bueno, esan auen...

-[...] ezta?

-Bai.

-Eta Oriamendiko horreik, horreik zer zien milizianuak edo?

-Ez, ez, reketiak.

-Reketiak?

-Lehenengo aillau zienak?

-Bai, Reketiek... zien. Ta horreik itxurie Donostiako jente holan e, zera izen biher auen. Eta gero, egun baten, o gehixauten be bai, geratu izen die "Hombre, vamos a saludarle a esta gente". Gero e, denporie pasau eta gero. Eta esaten "queremos conocer, o hablar con vosotros". Ta zer ete zan edo zer ta, ba, zelan egon zien hor, eta eurak akordetan ziela, baiña hau etxiau ikusitta, zelan, zelan bieldu leike honeik, ze motibo? Esaten auela. Eta gero, ba, preguntez. Bai, bai behin baiño gehixauten geratu kamiñuen, karo, kamiño ondo-onduen auen ta gurie.

-Bai, bai.

-Horixe da gure etxia, hor dauena!

-Aja.

-Bai. Loba batek pinttau auen, hamabost urte eukiko auen, bai, gehixau ez.

9. Aita egun pare batez preso Oñatin

- **Erref:** ARR-167/011
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Zaiñartuko mojegategiko eskolan ibili ziren Angeles eta anaia. Zelai bat ikustera joan ziren batean, guardia zibilek aita eta osaba Santi atxilotu zituzten.

Transkripzioa

-Eta, bueno, ba, holaxen. Eta gero Oñetin, esan dozune, segiru. Gu eskolara juaten gitzen...

-A Oñatin be bai?

-Esko... bai, ha Zaiñartu, Mojategira!

-A, Zaiñartun e?

-Mojekana. Ez, ez gauen...

-Ha Upain ostien dauen zera?

-Bai, haraxe faten gitzen. Eta, ba, behintzet hantxe! Guk galdu ez gauen ein, eskolie be, zeozter ikesi behintzet in gauen. Eta ba, Nikasio tan ni. Joxe Mari ez, Joxe Mari ez dot pentzetan faten zanik e. Ez dakit. Eta han gingozela, ba, hor egunen baten akordau jako Santiri, edo bateron batek esan utsen e "Hantxe xaukat nik zelaixa, eta bedarra gure badok /gurebok/ ebai han zerien" edo. Ta bueno, ta "Hi, juan biher xuau /juanbixuau/ harexe", Nikolas auken gure aittek izena eta "Haraxe juan biher xuau /juanbixuau/" ta juan zien bixek, bueno, ba, terrenuoi edo gauzioi ikusten, han ba o ganauek erueteko edo... ta "ba, hemendik hartuko xuau" ta kanposantutik, klaro lehen auen bidie han Santipillau ondolik...

-Bai, bai, ondiok han dau bidia. Oin ia kotxiak pasaittekua.

-Eta, hor ailegau die kanposantuen parera ta "Alto!" ta hartu ta kartzelara bixek. Bixek kartzelara Oñetin egonda daz kartzelan. Gurien aitte ta tio Santi. Ta tio Santi, bueno... "Atara [gaittezan]!". Gure aitte, barriz, bueno zan nerbiosue! Lo ezta...! Bestie mokarraza baten esaten auen e. "Santik ein jittuuuuk mokarrazak!" Berak ezta ezta... begirik batu be ez! Eta, tio Santik, han bentana txikitxuek ohi azen, han Kartzelan, ontxe be han egongo da igual, ez dakit.

-Baiña kuartel zaharrien, edo aiuntamientuen, edo nun euki zittuen?

-Aiuntamientuen! Han. Eta esniekin juan zanien Juli, ni baiño urtebete, edo nire edade ingurukue zan, juan zanien esniek erueten hara, ikusi dau "Juliiii!" han.

-Bentanatxotik?

-Bentanatxotik.

-“Juliiiiiii!!!”, “Ez dakitzu zelako lotsaixe pasau doten nik. Zelako lotsaixe pasau doten!”, “Sakakortxue ekarri! Sakakortxue!” itxurie batonbatek erun utsien...

-Ardau botillia?

-Ardau botillaren bat edo, eta bueno, baiña guk esaten gauen eneeeee... Karo, gurien amak eta bagekixen zelan sartzen zienak orduen eruen eta hiltten zittuena... ikusten dozu ama negarrez ta ba...ba ez dakitzu, ez dakit

ez dozu ondion pixe... zeraketan hori zerori, ardura...

-Bai, bai, bai. Eta joe, egonezina ezta?

-Bai. Eta, bueno... eta ondion orduen, gaiñera, zan egun bat esan auna e
“Ein biher dittuu /bidittuu/...” zerak, ez dakit ba zan Kandelaixo egune edo
holakon bat zan, “...torradak eta pellak”. Tiak eta esan auen “Ein ein biher
dittuu” aber horrek datozenerako preparaute, holakotxe platokarie
preparaute, ta ba agiri ez ta, agiri ez ta...

10. Anaia gudari biak preso

- **Erref:** ARR-167/012
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:33:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Oñatiar batek aita eta osaba salatu zituen. Egun pare bat preso egin ostean etxeratu ziren. Bi anaiek Amaiur batailoian borrokatu zuten. Legutioko frontetik anaia baten nortasun agiria bidali zuten etxera. Hiltzat jo zuten anaia hori, harik eta Gurutze Gorritik, bizirik zegoela esanez, berriak iritsi ziren arte. Larrinagako kartzelan zegoen preso, eta beste anaia Santoñakoan.

Transkripzioa

-Natik abixue, Nati Upaiñek: “Bai, esan dabei zera, Santi, Santi Upaingo sartu dauela kartzelan”. Ta klaro, Santikin [“así”] Nikolas. Eta gero aittak esaten auen “Aiii, horretxek sartu gindduen gu kartzelan”. Bizikletan etorten zan Zerrajerara lanien eurak denunziau eta sartu zittuena. Oñatikue.

-Han auzokua?

-Oñatikue. Ta aittek ikusi in auen e. Ikusten auen. Klaro, egunero pasetan zan ta. “Horixe zuan ba”.

-Eta kartzelan egon zienian egurrik edo hartu euein, edo?

-Eeeez! Egurre? Keba! Han? Han egurra? Kebaaaa! Kartetara [jolasten] ta han ibili zien, bueno! Zazpi tt’erdixen, neska ta mutiko.

-Han kartzelan be?

-E?

-Han kartzelan be?

-A, kartzelan eeeez ez ez.

-Kartzelan ia egurrik hartu...?

-Aaaa! Ez, ez, ez, hori ez. Hori ez.

-Eta ze egon zien denpora asko?

-Keba. Karo, eske iñundik ez euen ezer ta batonbatek ez dakit zer eingo auen, bieldu zittuen hurrengoko egunien edo hurrengokuen, ez dakit zenbat... egun bat edo. Baiña haik, ha eguna be pasau ein biher zan e / einbizan/.

-Bai. Hareik eta zueik.

-Ta gu, gu, klaro. Ikusten gittuen ama-ta negarrez, ama-ta negarrez...

-Bilddurrez...

-Eta... Bilddurrez, ez dakitzu?

-Eta bixen bittartian esaten dozu zure bi anaiak frentian eozela?

-Ez, nire anaiak Bilbon. Baiña errez... klaro, Amaiurren azen bixek, baiñe separaute itxurie, o bata lehenau sartu, zegatik ha kartzelan, Angel

Santoñan egon zan. Eta gero hara, ba, Bilbon sartu zienien edo hor Gernikan...

-Santoñan preso?

-Preso, preso, ez. Bai, hartu ta Santoñan preso. Eta zera, Larrinagan egon zan Sabino kartzelan. Eta gurien amari abixau utsenien... a! Ta hori, aurretik frentie egon zanien Villarrealen, hori, Villarrealen, ba, buuu asko hil... pentsetan dot asko hil ziela orduen, esaten dauenetan.

-Ha oso gogorra izen zan bai.

-Eta har bateronbatek ekarri dutse gure Sabino, zan zaharrena anaia, karneta edo. Karo, ha karneta ikusi auenien gurien amak, eta aittak...

-Adios.

-Pues adios. Hil juek. Eneeeeeee...! egunero negarrez, badakitzu zer dan hori, egunero negarrez ikustia. Eta gero, ba ez, itxurie ba nunbaittetik ziher e bateronbatek ein zittuen jesiñoren batzuk eta nunbaittetik ziher jakin gauen bide... zerak... e, Jesus, esango ete dot! Kruz Rojako zerakin. Abixua. Abixua edo notizia, bizi dala.

-Preso.

-Bai, Sabino.

-Preso euela.

-Bai. Ta orduen bueno, ba, [oin behintzet] aber nun dazen ta. Hurrengoko zera izengo zan ba hartu auenien Bilbo, ba Larrinagan kartzelan, kartzelan edo bai, han egon zan behintzat. Eta bestie Santoñan.

11. Anaia "Batallón de Trabajadores"en

- **Erref:** ARR-167/013
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:36:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Santoñako kartzela oso egoera txarrean omen zegoen. Soldaduska egiteko atera zuten kartzelatik, eta Toledoko frontera eramane zuten. Beste anaia "Batallón de Trabajadores"en egon zen. Aitak idiekin militarrentzako garraioan jardun zuen Arrasaten.

Transkripzioa

-Santoñan, gaiñera, zala kartzela bat...! Humedadie danien humedadie, beti bustitta. Eta lurrien be etzin be... ta, bueno, baiña gero hak soldautzie eitteko auken, eta atara auen soldautzarako. Eta ha iruen auen militar, Toledon ifini auen, frentie Toledon be. Eta Tolledon egon zan Angel.

- Baiña baiña, frentian edo "Batallón de Trabajadores"en?

- "Batallón de Trabajadores"en egon zan zaharrena.

-A.

-Bai.

-Eta bestia frentera?

-Bestie frentera erun auen. Klaro, soldautzie ein barik, ba soldau jantzi eta frentera. Iñok, guk ikusi be ein barek e! Soldau, handik eskribiru edo...

-A, kartzelatik hartu eta...

-Klaro! Klaro, zuzen. Eta Sabino-ta, ba, "Batallón de Trabajadores". Eta gero, "Batallón de Trabajadores"etik erun zittuen kamiñuek eitten zerera, ha... Kanariasera.

-Jo, haraiño, e?

-Bai. Eta hantxe ibili zien. Asko, gaiñera, mondrauetarrak eta! Asko! Hemen e... bai... asko. Ta behintzat handik kamiñuek ez dakit akabau zittuen. Etorri zien behintzat banaka-banaka. Esaten auen gurien aittek "Hauxe dok ona!" gero Jua... Iñigo, Jesus Iñigo ez, Joxe Mari be soldau. Klaro, hartu auen ha be soldau. Eta berak, aittek, kontaute auken zenbat hillebetien bere semiek egon zien, ba, kartzelan eta mil...e, soldau. Ez dakit zenbat hilebete, ahaztu... horixe ahaztute daukat. Baiña asko e...!

-Bai, bai, hor batzuk eon zien.

-Ta geu bakarrik.

-Zortzi eta beratzu urte-ta pasau zittuein e.

-Bai.

-Soldauskie, gerrie edo zeran...

-Bai, bai, bai, bai. Eta hiruren artien ez dakit zenbat urte.

-Urte pillia, hirun artian.

-Aittek kontetan auen.

-Bai, bai, bai, bai.

-Bai.

-Mekatxis la mar.

-Ba ta ama, o aitta, ba... klaro, bihera auen itxurie ta gurien aitteri abixetan utsien zera kargixe... kargie jasoteko Anporretara. Anporretara eta hor, San Kristobalera be bai. Ta orduen ez auen kamiñorik! Eta buenooooo dana lokatzie, dana etorten zan ta...

-A burdixakin?

-Bai, burdixakin. Burdi e bai, honeik tronkuok e, beste... burdixe da diferentia. Motzaua burdixa, errubera bi eta zer batzuk lotzeko, tronkuek arrastretako.

-A arrastrian erueteko, ia, ia.

-Eta ba zeroi be, hor auen gurien auen hori itxurie ta erun auen kaiñoiren bat edo, jasoteko horra be eruen auen be, aittari deiketan utsien. Eta...

-Idixak zeukotzuein etxian?

-E?

-Idixak etxian?

-Etxien idixak! Ta hor geratu zien idixok, ez dakit...

12. Batzuk Oñatira eta besteak Bergarara

- **Erref:** ARR-167/014
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:36:13. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Amandrea eta izeba bi Bergarara joan ziren gerratik ihesi. Angelesen familia eta beste izeba bat ume birekin Oñatira joan ziren. Idiak eta behi bi eraman zituzten eurekin. Beste behiak auzoan utzi zituzten, eta oiloak eta bestelakoak etxean geratu ziren.

Transkripzioa

-Zuk esan dostazu e, pittin bat atzeratxuau fanda, esan dozu fan ziñeilla Oñatira burdixakin eta zaldixakin ta karruakin, ezta?

-Ez, karriz... ama, ama... amama, amandria, amandria, orduen amandria. Amandria, nire tia, eta beste tia solterie ta tia beste bi umekin hirukin auena, juan zien, ba, hor gauken ha, Telleixa aldien gure amandrien aldetik

familixia. Eta jua zien hara. Eta egun baten egon zien egun batzuk e...
egun batzuk ez... eee Telleixan, eta gero handik topau auen... eta Isasi
baserrixa, han egon zien tia Euxebi ta.

-Telleixa hori hamengua, Arrasatekua?

-E? Bai, hori Arrasaten bizi zana.

-(Laguna) Baiña Tellerixa Bergaran auen, ezta?

-E?

-(Laguna) Bergaran auen Tellerixa, ezta?

-Telleixie zan Bergan, Altos Hornos. Bergara fan zien. Haik fan zien Bergara.

-Orduan Zaiñartun be baeuen Tellerixia.

-Eta gu egon gitzen Zaiñartun. Eta tia be. Ta gero tiak be, klaro beste
ahizta bat aukena, nausixena, auen zerien, Renterixan. Ta tiak esan auen,
hak esaten utsen: "Etorri zaittez honaxe". Ta jua zan neskatiillakin hara,
baiña ez dakit zortzi egun ein zittuen. Bera tia Rufinan etxera, ta tia
Rufinan etxera. Gure ama. Eta gure ama, pentsau zeike orduen ez auken
etxie, baiña... gingozen Ipintzan eta Ipintzan itxurie gustau in jation
neskatillai. Karo, honeik egunero-egunero gabien etorten zien Juanito
Upain eta Gregorio aldemenekua...

-(Laguna) Mugartzakua?

-E bai, zerekua, Jardingua esaten utsiena, aldemenekua, Ipintzan guri
aldemenekua. Eta haretxek erakutsi utsien zerari, Josuneri, ibiltten. Jarri
sukaldien han bai? Eta "Aber, etorri ona!" ta. Haik be gaztie orduen. Eta
sukaldien hantxe neskatiillorrek segittuen ikasi auen, Josunek. Bai.

-Eta, baiña esan dozu ganauak be erun zittueilla.

-Ganauek bai. Eta...

-Burdixakin, burdixakin fan ziñain...

-Burdixekin fan gitzenien idixek, idixek e, burdixen.

-Baiña ganauek orduan erun zittuein?

-Ez, anai batek soka bategaz eta bestiek beste bategaz. Bi ganau behintzat
eruen. Ba esnie daukena edo. Ta bestiek, pentsetan dot, Kataidera eta
Artzubira erun zien. Bai. Repartiru, ba zeozer. Karo, ha bakarrik...

-Zenbat zeukotzuein orduan?

-E?

-Zenbat behi?

-Ba beste bi bai behintzat. Bai bi edo hiru bai.

-Eta bi erun zittuein Ipentzara eta bestiak...?

-Bai, bestiek e ba... hor egongo zien. Bai.

-Orduen ganaurik ez zeuen galdu behintzat.

-Ez, ez, ganauek ba zeo... bateronbatek zerera bai, mataderixara hiltteko
erun auen o idiskua edo txahalen bat edo hori bai. Baiña bestelan ba
ganauek e baazen.

-Eta honeik, klaro oiluak eta danak etxien geratuko zien?

-A klaro! Oiluek eta guk zerak ez... auskalo!

-Bueltan hor egozen edo...?

-Keeeba! Ez dakit nik... keba!

-... be ez igual.

-Bai... ideaik be ez, ideaik be ez zer ingo zan han. Bai.

-Joe.

-Arto kamarie esaten auen aittak ikusgarrixo dauela... eta, klaro, ha ezin
eruen...

-Talo pillia ingo zittuein soldauek, ezta?

-E?

-Talo pillia.

-Bai, bai.

13. Hildakoak San Franziskoren abituarekin

- **Erref:** ARR-167/016
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:42:42. **Bukatu:** 00:45:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Oñatitik bueltatu zenean, mojen eskolan jarraitu zuen kalean. Eskolatzea bukatu eta etxean geratu zen. Aitajaunak Ameriketara bidalitako seme bat etorri zen Zeletara. Aitajauna hil zenean, hildakoak San Frantziskoren abitua jantzita sartzen zituzten hilkutxetan.</p>

Transkripzioa

-Ze pasau zan gero? Gerria, gerria ia atzera etxeratu ziñain...
-Bai.
-Pittinka-pittinka anaiok be fan zien etxeraketan, ta zera...
-Bai, baiña bufff... etxeratu orduko hareik... denpora asko kosta jatien, asko, asko.
-Eta zu Arrasatera bueltau ziñanian eskolan jarraitu zan?
-Ez, gero pentsetan dot... ez dot pentsetan e. Arrasaten, Arrasateko kolegiaren ibili nitzen ni.
-A ia, ia Zigarrolan ez?
-Ez.
-Eta ze, ze kolejiko zan hori?
-Zera...
-Mojena?
-Mojena, bai.
-Zegatik zu handik etorriko ziñan... hogeita hamazazpitan hamahiru urtekin.
-Bai, holako bat.
-Oseake nik hamen ipiñi dot sei urtetatik gerria hasi arte Zigarrolan. Eta Oñatin gero Zaiñartun...
-Zaiñartun.
-Eta atzera...
-Eta ba horixe denporioi, han in gauen denporia.
-Eta hamen gero atzera mojetan.
-Bai.
-Eta zuk eskolia... eskolia bukatu zebeñien ze, ze burubide, etxian geratu ziñen?
-Bai, bai. Ni etxien, etxien. Nehikue lana auen geurien etxien. Hainbeste mutil ta gizon ta... Gero tio, tio Ameriketatik be etorri jakun. Eta hak be... hori pentsau zeike. Hori nire aittejaunek bere semie bieldu ein auen Ameriketara.
-Bialdu?
-Bialdu.
-Alperra zalako edo?
-Alperra, osue! Eta...
-Barkuen ipini ta bialdu ein eben Ameriketara?
-Ameriketara bieldu ein auen. Eta esaten auen. “Zer, honekin zer? Ala, fan hadi” ta bieldu auen. Eta ba bagekixen guk, tio amerikanue ta zera ta. Gero han geratu zanien ta zahartu zanien, ba, trajie ta sonbrerue ipini,

etan ban etorri zan Mondrauera. Ta Mondrauen ta zer ta gure etxera. Eta "Aiii..."

-Zenbat urte eukela etorri zan?

-Ez dakit. Ia bastante urte. Ez naz akordetan. Urtiek, eta preguntatu be ez.

-Aittajauna ez zan biziko.

-E? Eeeez, ez ez. Aittajaune gu gaztetan e... bai, akordetan naz. Gu eskolatik juan, eta esan auen "Aitteitte hil da" ta San... ointxe be ikusten nau! Kajan sartute, San Frantziskon abittue jantzitta.

-Kontxo.

-Lehen horixe eitten auen!

-Abittue jantzitta?

-Abitte... bai! Abittue San Frantziskona! Ez dakit ba kofradixaren baten auen edo! Ez dakit. Behintzat, abittuaz!

-A osea, orduen sartu aurretik abittua jantzi ta "pam!", kajan?

-Klaro, kajan, bai. Lelelengo hiltten dan momentuen jantziko utsien.

-Bai, bai.

-Bai. Horretxeaz akordetan naz.

-Ia.

14. Ama plaza andrea

- **Erref:** ARR-167/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:50:22. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Etxeko sagarrekin Bergarako San Prudentzio (Elorregi) auzoan sagardoa egiten zuten. 2-3 kupela ekartzen zituzten etxera eta bertan botiletan sartu. Amak esnea egunero eramaten zuen kalera; ostiraletan kaleko plazara joaten zen barazkiak saltzera, eta zapatuetan Bergarakora. Landareak ere saltzen zituzten.

Transkripzioa

-Ze izan zan, gogorra izan zan gerra ostien atzera basarrixa martxan ipinttia?

-E?

-Atzera basarrixa martxan...?

-A klaaro! Klaro, klaro. Badakitzu? Buuuuf.

-Ta soluak eta zelaixak eta pittin bat abandonauta egongo zien ezta?

-Bai, haik ondo azen. Zegatik asko, ta sagarrak-eta be ba ez zittuen kendu. Eta ba sagarrak be han azen.

-Sagardaurik itten zeuein zuek?

-Sagardaue itten gauen etxien. Bueno, etxien ez. Hor e, San Prudentziotik beheratxuau auen zer bat, han itten uskun, sagarrok eruen...

-A, tolaria?

-Bai. Eta gero etxien. Ba beti gurien bi barrika edo hiru egoten zien e. Sagardaua. Eta gero ba... gero bai, ta enbotellau. Ta han arka bat egoten zan, txarrixen zera-ta hiltten zienien, ez dakitzu? Urdaixe eta gatza emoteko, basarrixetan danien egoten da hori. Eta han auen lurre ondion.

-Bai, harrizko arkia, ezta?

-Bai. Eta ipintten zien hantxe botillak. Ta fresko-freskue egoteko. Bai.

-Eta zueik basarrixan, esan dostazu, esnia erueten zeueilla kalera.

-Kalera. Karo bezeruek.
 -Ortuko gauzarik...a eta baiña esan dostazu ama faten zala ez dakit nungo merkaurea.
 -Bai, ama etorten zan hona, Mondrauera, osea, kalera. Bai. Egunero, eta ez dakit egun bat ala... bat izengo zan tratuakin, berduria ta gauzak ekarten. Etxien auena. Sagarrak eta berdurie, porruiek, kipulak, azelgak, dien danak. Ordukuek, bere denporan, etorten zan ama. Eta gero zapat... hori eguakotxien. Eta zapatuen juaten zan Bergaraa. Landarak be bai eukitten gauen. Eta landaratan be gurera hortik Zubillaga aldetik eta Bergara aldetik, hortik Altos Hornostik honutza ta etorten zan. Bai, gurera, Zabaletara, Garratzera, bai.
 -Landara billa?
 -Landara billa, bai.
 -Ia. Honeik be asko itten zittuen, Ibarretakuek be.
 -A baai.
 -Horreik be...
 -Horreik be...
 -[Durangora] ta Elgoibarrera eta Eibarrera faten ziela...
 -Bai.
 -... saltzen.
 -Bai.
 -Zela zan, Solekin ta...
 -Baten bat Bitorixara be juaten zan. Hemendik e, saltzen.
 -Bai, uste dot horreik be faten ziela.
 -Igual honeik be fango zien Ibarretakuek be. Bai.

15. Tifusak bi lagun hil etxean

- **Erref:** ARR-167/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:55:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Angelesak Oñatiko plazara seme bat bidaltzen zuen etxeko jeneroa saltzera. Lehenago astoarekin joaten zen plazara, baina Angelesen garaian zaldiak tiratutako orgarekin joaten zen. Angelesen aurreko belaunaldian, tifusak amaren ahizpa bi hil zituen etxean. Etxean denak tifusak jota zeuden, eta auzokoek laguntzen zieten.

Transkripzioa

-Esan dozu, osea, kalera, Bergarara, ta lehen beste herri bat be esan dozu.
 -E?
 -Beste herri bat be esan dozu, beste norabait be faten zala?
 -Etxetik bieldu gindduenien?
 -Ez, ez, ez, zure ama...
 -Aaa! Oñetira. Oñetira, baiña Oñetira bielketan auen Angelek, bera fango zala! Eta ha...
 -Eta Oñatin, Oñatin be lehen zapatuen zan.
 -Oñatikua be zapatuan izaten zan.
 -Ba ha faten zan besteren bategaz. Besteren baten arrimora, juaten zan Angel. Bai.

-A baiña ama bakarrik, eske karo ama...

-Ama, ama bakarrik e. Bergarara bakarrik. Amak, gaiñera, esaten auen lehen juaten ziela zerakin, astuekin. Banastatan ahal dan... hasi eta... faten zien. Ta gero ia ba karruekin samurrau. Eta pentsau zeike. Gure etxien hil zien orduen, tifusa be egon zan itxurie, gu ez gingozen e, gure aurrekuek euki auen, amak eta. Eta ez dakit, bi edo hiru hil zien gurien tifusaz. Eta ama bieldu auen botikatan Bergaraa oiñez. Fan ta etorri, gure amak.

-Zure amak ezautu eben tifusa orduan?

-Ta, ba... bai. Gero bera gaixotu zan! Eta berari e... bueno! Ez dakit zertzuk ein utsiela... eta bai, urten auen e. Berak urten auen, baiña beste bi edo, haik be neskak, hil ein zien. Tifusaz.

-Osea, zure amaren ahizpak...

-Eta gure ama ez. Gure ama, eneeeeeeee... bueno! Esaten auen ein jakola luze...! Karo, ta gaiñera bera tremendozko kalenturiaz allegau ei zan. Bai. Oiñez, e! Ta ha be ogien sartuta, eta, ba, Garratz, aldemeneko zerak, Garratzekuek eta, Garratzeko amandrie ta, apurtxo bat lagunketan-edo etorten ei zien zerera, gurera.

-A etxien, danak eukien etxien?

-E?

-Etxien danak gaixorik?

-Bai, itxurie danak, gehixenak, danak gaixorik! Eta, ba, zeozer, bai. Gero ez dakit zer uretan sartu, ez dait zer eitten utsiela, entzundako zerak die horreik e, ikusi ez. Gu ondion urrin gingozen da.

-Eta zure amak orduen bi ahizpa galdu zittun?

-Bai.

-Kontxo, hori gogorra izango da, e?

-Baaai.

-Gerria be gogorra da, baiña...

-Bai, bai, bai. Ta horretxegaz, tifusaz. Orduen asko ibili ei zan Mondrauen e!

-Bai, bai, egon zan bai, zer bat.

-Bai, asko. Bai.

-Entzun dittut holako, tifusen kontuak beste lekutan be bai.

-Bai. Bai, bai.

-Kontxo.

-Ba holaxen.

16. San Isidro jaiak; umetako jolasak

- **Erref:** ARR-167/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Angeles zen etxeko jostuna. Auzoko jaiak San Isidroak dira. Jaietan errepidean egiten zuten dantza. Garizuman txirikiletan ere errepidean jolasten zuten. Udaran Epeleko erreka sarritan joaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Eta zu, orduen, esan dostazu etxien geratu ziñala...
-Bai.
-...eskolia akabau eta gero.
-Bai. Ta gero josten ikesten. Ibili gitzen...
-Kalien josten, edo etxien?
-Eta... ez, etxien.
-A, etxian bertan?
-Bai. A jozkiñen bat bazeukotzuaien etxien, ala?
-Ez, nik etxekuek eitten nehikue lan nauken. Frakak eta arkondarak-eta neuk josten nutsen.
-Eta garai hareittan zueik auzuen jaixak eta eukiko zittuein, ezta?
-Bai, San Isidro.
-San Isidruak dia.
-Bai. Hamabostien. Gu...
-Ta zela...
-Honbreeeee!
-Zer moduz faten zien jaixok?
-Jaixok ondo! Guk pasetan gauen...! Nik hori esaten dutsat oin neu... gure, nire loba ta esaten [duskue] ba "San Isidro da, ta bagoiez!" Ta hurrengoko egunetan edo preguntau "Zer? Nerea, zer ein dozue /einddozue/ San Isidrotan? Nehikue dantza ingo zauen" ta "Bueno amama, mesedez! Dantzan". Ta "Ezet? Guk zenbat dantza ein ete gauen!". Klaro, orduen gaiñera kamiñuen. Kamiñuen be bai, hainbeste, jente asko! Mondrauek zer haundixe auken e! Joera zerera... San Isidrorra, Ziorlara. Eta ba han e, ez auen holan lisorik eta kamiñuen jentie dantzan. Oin beste kamion ez auen pasetan orduen. Nox pasauko zan ba! Noxien behin.
-Bai, bai. Oñ aterpiek eta danak egoten die baiña jentiek ez dau...
-Bai... eta buenooo...! Guk e, pentsau zeike. Kamiñuen garizuman txirikilletan eitten gauen! Kamiñuen e! Kendu amari aurreko amantalak eta danok, neskake ta mutilok e! Batzuk, hala! Kamiñuen. Gero haxe hartzeko aurreko amantala jarri ta txirikillioi. Ta tortoleska ta... Oin, oin ez dauke idearik be ez. Ta gero haunditxuek in gitzenien errekan, errekie Epelekue zan garbi garbixe, Epeleko zera, "Hi, zegatik ez gaixuezan domeka atzaldien, guazen errekarra!" Zera, zera hartzen, zer bat, zerbaitzuk hartzen. Guk hartu ez, jaso harrixe ta ikusi ta, kangrekuek egoten zien! Bai, eta eskailluek be bai.
-Amuarraiña be...
-Eta gu? Gu udan? Puuu! Asko, ondo, hantxe pasetan gauen denporie!
"Más felices..."

17. Lixiba uretan eragitera, errekarra

- **Erref:** ARR-167/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Udaran arropa errekan garbitzen zuten, errotako urtegia irekitzen zutenean. Lixiba etxean egiten zuten, sutako hautsa eta erramuarekin, eta gero errekan uretan eragin. Arropen ontzia buruaren gainean jarrita eramaten ezagutu zuen Angelese.

Transkripzioa

- Baiñaitteko potzuren bat edo baeuen bertan?
- Bai, baauen. Honutzau.
- Igari itteko modukua?
- Hainbesteraíño ez baiña bai. Erropia ta, gurien ura egon arren, ura gastau itten zan eta faten gitzen erreka. Errekan. Ta gero errotie zelan auen gure etxien atzekaldien auen errotia eta han, ba, garixa, osea, jaten, josten, joten auenien zera, granuoi, ba, etorten zan ur [haundixe] ur boladie. Eta ur boladie aprobetxetan.
- Eta erropia garbiketako?
- Erropia garbiketako. Klaro, bestela neguen o udan be, ha be murrizttu itten zan. Erropa txikixe bai baiñe erropa haundixe, izarak eta garbiketako. Eta haintxe sartu belaunetaraíño eta...
- Osea ke, errotarixa noiz lanian hasiko zain erropak garbiketako.
- Bai, bai, bai. Gutxi gorabehera jakitten gauen, e? Gutxi gorabehera jakitten gauen. "Bai, erun jittune zorruek eta ointxe, laister etorriko don zera". Ta...
- Ta lixibie edo eitten zauein?
- Lixibie? Bai. Ni lixibiez akordetan naz. Zu akordetan zara? Ni akordetan naz lixibiaz, holako barriñoi, osea, honek barrikan erdixa eta han sartu izerok eta gero zelako lurrune eta botatzen gutsen zera, erramua eta useiña ta han bota urekin, bota, ta gero urteteko...
- Bai, baiña gaiñien ez zeban eukitzen sutautsa?
- E? Bai, hori geruau, ez dakit zetako zan. Baiña hori, ha zikin...
- Jaboia, jaboia.
- Jaboia, bueno. Behintzat hara bota ta.
- (Pilar Bastida) Sutako hautsa.
- Eta gero eruango zittuein, errotarixa lanian ebillenian, harek aklearittera zerera, ezta? Errekara?
- Errekara. Bai.
- Ze zekatzuen etxetik hurrian edo urrin?
- Ba, ez, bastante hurrien. Solua euen gure solue, bueno, bidetxiurra geunken eindda. Eta, Artzubi, errekara. Bai, e?
- Erropak eta astuan edo bizkarrian?
- Ke ba! Orduen sasoie ta...
- Barriñuan...
- Barriñoian, bai. Barriñoia holan aldemenien hartu ta, buruen ez, e? Baiña aldemenien hartu ta...
- Zuek ezautu dozue gauzak buruan eruaitten hemengo emakumiak?
- Bai, bai. Hemen...
- Zeuek sekula ein dozue?
- Geuk ez, e? Baiña Katalin Antoiñakue, haxe dauket ikusitte buruen. Ta gero beste bat San Prudentziotik etorten zan eta harek be bai, zestue baiña holan, zien zestuek, bai, eta bi zeraaz, jesus, asia erdixen eta bi tapakin horrek zestotxuok, haittek eruaten zittuen buruen.
- Eta buru gaiñien ze jarten auen?
- Bai, holako zer bat, sorji bat edo ez dakit ze esaten utsen.
- Sorjixa?
- Bai. Gurien ez, e? Gurien ez, hori ez dot ezautu.

- Baiña zuk bi emakume ikusitta dakotzu...

- Bai, ikusitta dauket nik hori. Antoiñakue ta gero San Prudentziokue ez dakit zan, Jesusan amama ez dakit ez ete zan. Bai, bai, bi behintzat ikusita daukat.

- Ia, ia.

- Bai. Ta hori kalien be esaten auen, [labadero], orduen ez, klaro, ez zauen etxien zerik eta labaderotara fateko, kalien be jentiek eruaten auela buruen zera.

-(Pilar Bastida) Baldia.

- Bai.

- Baldia orduan erropakin.

- Erropakin.

- Bai, bai, bai.

18. Komuna eskailera puntan

- **Erref:** ARR-167/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Argindarra beti ezagutu du etxean. Komuna ukuiluaren gainean zegoen. Ipentza baserrian, berriz, eskailera baten gainetik egiten zen, jartzeko lekurik gabe. Norbera garbitzeko terreina handi bat erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Ta zueik etxian argindarra ta bazeukotzuein?

-E?

-Argindarra.

-Bai, bai, bai, bai.

-Betik ezautu dozu?

-Nik pentsetan dot, bai.

-Eta kumunik?

-Komuna, bueno. Bai. Gauken baiña kortara, e. Atetxo bategaz eindda kortara. En kanbio, Ipintzan, Ipintzan gero in zan zera, baiña Ipintzan auen holan eskillera bat moduen, eta handik ein biher zan, eskilleran jarri ta ein biher zanoi.

-A, zulo barik eta...?

-Bai, zulo barik eta.

-Jarteko leku barik?

-Bai. Eta gero, gero nunbaitten ein auen han tiok, zertu auen, sortu auen zera erredonduori, pat... zer baten...

-Jazarritta eitteko.

-Bai, kaka. Ez, guk hori bagauken e. Hara fan aurretik.

-Oseake zueik Ipentzan "a pulso?"

-“A pulso”, klaro.

-Ondo da, han beittu, kortara fango zan ha.

-Kortara, kortara. Klaro geuk be atia be bagauken, eta bere zuluaz...

-Bai, bai, jazarritta eitteko.

-... ba jarteko lekua.

-(Laguna) [Goixan] "Cuarto Baño".

-Bai, hori gero, obrie ein zanian. Baiña ha beheko komuna, asko usetan gauen guk. Karo, danok zerien, ta gora fateko zera baauen baiña...

-Ta zueik zeuek garbiketako zela eitten zeuein?

-Ba barriñoi haundi bat ipini, urakin. Eta, ba, ogixe eitten zan lekuen, oso paraje zera zan, bentana txikitxo bat auken e, eta ogixe eitten zan lekuen, haraxe eruen, eta zerrau atioi. Atiek be orduen zien bat behien ta goixen bestia.

-Bai.

-Ta haik bixek zerrau, eta hantxe, jabondu, eta, ba, hantxe, hantxe.

-Eta mutillak be igual eitten euein?

-Mutillak faten zien erre kara edo.

19. Iturria, patinak eta ur-andela

- **Erref:** ARR-167/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:03:46. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Et xerako ura bi patinatatik ateratzen zuten. Edatekoa iturritik ekartzen zuten. Sukaldean uraska bazegoen. Iturburu batetik betetzen zen ur-andela ere bazuten.</p>

Transkripzioa

- Mutillak faten zien erre kara edo, ta gurien azen bi patin. Bata auen behien ta bestie auen goixen, ta goikue zan, oso hotza ura urteten auen. Eta, ba, handik, ba, udan ta...

- [makini] Zera, ura ataratekua?

- Ke ba! Eskuz! Botaten gauen baldie buruz behera, bete ta sokiaz atara eta erregetako be dana holaxen, e?

- Ta horri be patiña esaten xakon?

- Patiñe, patiñe, bai, zulue.

- Patiña ez zan hola bonbia...

- Bai, ta... baiña ez, ez. Karo, ha zan zeraue. Patiñe, baiña ez, ez. Horrek bestiok zien behera zulua aukien, e? Behera, behera. Eta han...

- Gero gaiñien, osea ke ze, [...] bueltatxo zera ein eta...

- Ez, guk...

- Sokiakin hola jasotzekua?

- Bai. Geuk sokiaz bota baldie ta jaso eta gero handik surtiduten gitzen garbiketako ta.

- Eta erateko, erateko...

- Erateko ez. Erateko faten gitzen metalitturrixen, haraxe. Hori be ipini auen horrek jauntxu horrek ipinitta auken deposittue auen bere bestekaldien ta zera zan, metalezko ura. Gozua, e? Gu faten gitzen egunero ta uda partien, ene!

- Eta sukaldien fregaderia bazekatzuein?

- Bai. Fregadera, akordetan naz illun samarra zala. Orduen, e? Gero ipini zan ia bihe dan moduko fregaderia. Bai.

- Eta ura ze zekotzuein teillatuko urak [...] batera edo?

- Ez, ez. Itxurie zeren bat auen, zelan esaten da horrei? Jaixotzako...

- Manantiala edo...

- Manantial hori auen han, piñudixen edo, han topau auen behintzat guriak

eta handik ekarri zan depositora ta depositto dezentia auken, e? Uda partien, ba, ha be gutxittu itten zan. Bai. Ta bestela mutillek erre kara zerera, igeri eitten. Orduen erre kak etorten zien baiña garbixak, e?

- Baiña, baiña neguan ez zien erre kan garbittuko?
- Ez, ez.
- Neguen [...]
- Neguen ba, ba, ahal dan moduen haik be, askara fan ta...

20. Soinujolea asto gaine an

- **Erref:** ARR-167/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:06:05. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Auzoko jaietan futbol partida jokatzen zen herriko futbol zelaian.
Angiozarko itsua asto gaine an soinua jotzen, eta neska-mutilak saltoka kantuan inguruan joaten ziren futbolera. Era beretsuan bueltatzen ziren auzora. Asto horren eskultura bat dago gaur egun Eroski ondoan.</p>

Transkripzioa

- Esan dostazu jaixa, San Isidrota ze egoten zan mezia ta erromerixia?
- Mezia ta erromerixia, bai. Ta gero jokuek be egoten zien, e?
- A bai?
- Bai. Jokuek be egoten zien. Eta bigarren egunien astua, astuekin... klaro, hau, itsua zan soiñujoillia Ainguzarkua.
- Angiuzarkua bai.
- Bueno ba, harek joten auen zera asto gaiñien jarritta eta gu danok obatu alkarri ta bueno ala! Kanpofubolera! Mondraue dana pasau ta kanpofubolera. Baiñe, baiña neska ta mutil baiña asko e?
- Ainguzarko itsua asto gaiñien soiñua joten.
- Soiñua joten.
- kontxo!
- Bai. Eta gero ba, fubola itten auen han zaharrak gaztiekin edo ez dakit zela zan, fubola. Eta gero ostera...
- Atzera buelta?
- Atzera buelta, baiña...
- Soiñujolia asto gaiñien?
- Klaro! Hara fateko baten bat biher auen ta ba asto gaiñien jarri ta berak obatuta etorteko baiña soiñue behintzat edo geuk joten gauen, geuk kantau ta fan danok baiña ileran, e? Ene... alpargatakin ta, e?
- Bai, baiña Angiuzarkuoi asto gaiñien soiñua joten eben?
- Joten auen soiñua. Ez dakit nik lotu itten auen edo zela itten auen baiña joten auen soiñua.
- Hoixe ba politta!
- Ta horregatik horrek astu horrek, hor dau astua, horregatik dau. Hor ez, ez. Eroski onduen dau asto bat.
- Bai.
- Horixe signifikaziñuoi da astua. Horretxegatik da.
- A, kontxo!
- Bai. Ha astuek hori dauko. Asto bat juaten zan, ba ez dakit nundik, orduen astuek oin baiño gehixau dazen.

- Bai.
 - Eta, ba, asto gaiñien ta gu ala! Saltoka.
 - Eta kanpofubola nun euen orduen? Oin dauen lekuen? Ez...
 - Ez, ez, ez. Arrasaten. Han Zarugalde, Arrasaten, eskola profesionala dauen lekuen.
 - Bai.
 - Bai.
 - Bai, bai, bai. Bai, fotografixa bat ikusi nauen liburu baten oin aurrekuen ta...
 - Bai.
 - Bai, bai. Osea ke, orduen, Ziorlatik hara astuen atzetik...
 - Bai, bai. Astuen, astue erdixen hartute ta pentzau zeike hainbeste oin ezin zeike halakorik in, baiña orduen bai. Noiz pasauko zien ba kotxiek? Eta bueno, guretzako zan hori...

21. "Aramaitteko" kanpaiaren ordeaz, bederatzietakoa trenak

- **Erref:** ARR-167/025
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Gaztetan igandetan Bergarako San Prudentzio (Elorregi) auzoko erromeriara joaten ziren. Bederatzietakoa trenak egiten zuen "aramaitteko" (abemariatako) kanpaiaren lana, etxera joateko ordua. Erromeriak arratsaldean izaten ziren orduan.</p>

Transkripzioa

-Eta beste, beste jolasik, beste jokurik edo zer eukitten zeuein jaittan?
 -Ba ez dakit, mutikuek zerbaitzuk eitten zittuen, ez naz akordetan horretxegaz.
 -Eta aizkolari, edo bertsolari, edo...?
 -Ez, ez horreaz ez, gero, geruau bai ,baiña orduan gure denporan ez.
 -Eta auzoko jaixak kenduta, beste nora fateko joeria zeukatzuein?
 -Ba domeketan San Prudentziora. Haxe hurren auen ta!
 -A, zuentzako kaleko plazia baiña San Prudentzio hurrau?
 -Bai.
 -Bai, e?
 -Bai. San Prudentzio, bueno, haxe, zegatik kalera etorten ez uskun isten ta! Gerotxuaura arte!
 -Aaaa.
 -Bai. Eta, beratziretarako, oin ez e! Beratziretarako, gurien holan beratzirek jota edo baazen gurien aitte hala, erromarara urten ta, kamiñue pasau ta han, zeozar eitten dabillen moduen, baiña... aber... zelan gatozen gu.
 -Zueik aramaittekuek-eta ez ziñuein entzuten?
 -Aramaittekue gurien izeten zan... trena, beratziretakoa trena pasetan zan. Trena.
 -Ta ha zaukotzuein aramaittakue?
 -Ta ha zan aramaittakue. Santa Agedara be faten gitzen e, zerera. Baiña lelengo kunpliru ein biher zauen /einbizauen/ e! Esandakua. Eta ba guk eitten gauen, ba "Hau sartu biher don /bion/, berakatza eta..." sartzen.

Klaro, orduen, neguen. Eta “Hori eitten badozue /bozue/, itxiko jatzue”.
Buuuuu, ein! Zer ez ein! Santa Agedara! Ta Santa Agedan ein nehikue
dantza, zapata danak baltzittu... Karo, Santa Agedara, eurixe einnde
baauen, ta han ez auen plaza... bueno, plazie baauen baiña e, ez e... ez
auen han zementorik eta ezebe! Lokatzia. Eta etxera. “Etxera,
beratziretako trena pasetan danerako etxera, e!” Baiña, karo, orduen
baiña, oingo moduen, oin hasten die gabeko... berandu!
-Bai, bai, bai.
-Jaixek.
-Baiña orduan arratsaldian.
-Ta ba orduen atzaldien! Laurek inguruen edo hasten zien eta, edo lehenau
igual!

22. Angeles udaletxera ezkondu zen

- **Erref:** ARR-167/027
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:12:21. **Bukatu:** 01:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Angeles udaletxera ezkondu zen, bertako inspektorearen semearekin ezkondu
zelako, eta bertan etxebizitza zutelako. Angelesen semerik nagusia
udaletxean jaio zen.

Transkripzioa

-Orduen, zerak, kanpaiak, gero ni ezkondu nitzenien, ba, klaro, honeik
etxiok hasitte azen eitten. Eta...horreik e, bestiok. Eta, ba, aukien zera,
lelengokuek opziñue hartzeteko... etxie, etxie hartzeko, ba ezkonbarrixek
eta ezkonduetakuek. Ta ni ezkondu ta ama... suegriaz bizi izen nitzen. Bai.
Ta hi, zerak esaten dau gurien, Juan Ramonek esaten dau, “E! Ni
Mondraueko aiuntamientuen jaixotakue!”. Nire semiek, berak esaten dau
“Ni Mondraueko aiuntamientuen jaixotakue!”. Klaro, orduen etxien eukitten
zan umie ta. Oin ez baiña.
-Baiña eta zueik aiuntamientuen bizi ziñein ala?
-Ni, klaro, ezkondu, eta, ba, amagiñarreban etxera jua gitzen.
-Eta amagiñarreba, amagiñarrebia nun bizi zan?
-(Laguna) Alguazille zan [...].
-A bai, zan inspektorie...
-A!
-Nire gizonan aitta. Inspektorie zan. Migel `Haundi´, ez dakit entzune
[dauketzun] be ez.
-Migel haundi?
-Migel haundi. Eta gero, ba auken pisue, emoten utsien horri ta
sekretarixueri, etxie aiuntamientuen goixen.
-A jontxo!
-Ta ni hortxe, aiuntamientuen goixen jaixotakue da gure, nire seme
nausixena.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com